

## ETAren Agiria Euskal Herriari:

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak agiri honen bidez bere gain hartzen du Ekainaren hastapenean Baionan hildako Kepa Arizmendi "Baztan" Elizondoko seme borrokalariaren burkideatza. Gisa berez, Mexikon hildako Joxe Antonio Otxoantesana "Okana" Ondarruko seme borrokalariaren burkideatza ere bere gain hartzen du gure Erakundeak. Batak zein besteak militantzia kontsekuentearen eredu, bi hamarkada baino gehiagoko ihesa, sasia eta erbestea ezagututako militanteak. Bi kide hauen heriotzak eragin digun samina agertzearekin batera, bere senitarteko eta lagunei gure doluminak helarazi nahi genizkieke lehenik.

Era berean etsaiak Jon Anza desagerrarazi zuela lau hil egingo dituenean Euskadi Ta Askatasunak bere salaketa berragerrarazten du agiri honen bidez. Hil hauetan Jonen desagerpenaz berririk ez izan arren, argigarria da Frantziako Poliziek ikerketan galdekatutako Jonen lagun eta senideei desagerpenaren atzean Espainiako Polizia edo Guardia Zibilaren esku sartzea hipotesi garrantzitsuen gisatzat erakustea. Polizien adierazpen horiek Frantziaren erantzukizuna zuzitzeko edo Espainiaren aldebakarreko inplikazioa erakusteko egiten den ez dakigu. Edonola Frantziarena da, bere polizien edota bere muga barnetan sartu dituen Espainiako polizien bitartez, Jonen desagerraraztearen erantzukizun osoa.

Bestalde, azken hilabeteetan buruturiko honako ekintza armatuak bere gain hartzen ditu ETAk:

- Ekainaren 19an, Arrigorriagan, Eduardo Puelles García Espainiako Polizia buru ezagunaren autoan egokitutako lehergailuz burura eramandako exekuzioa.

Puelles García, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ezkerreko militante abertzale aunitzen eta gazte independentisten aurka buruturiko operazio polizialen buru izan da azken hamar urteetan. Bai eta ETAren aurka buruturiko zenbait operazio ezberdinen koordinatzaile ere. Komisariako torturatzailerak eskolatu zein zitalena batzutan, bestetuzetan "polizia onaren" paperean aritzeaz landa, kalean militante independentistak mehatxu bidez kolaboraziorako eginiko jazarpenaren arduradun zen ere. Orobat bere senide batek onartu bezala, Puelles García ez zen inoiz biktima bat izan: Errepresioaren eta Espainiaren inposizioaren kate begi bat zen, Espainiaren mertzenario nagusi bat.

- Uztailaren 10ean, Durangon, Espainiako alderdi faxisten aurkako kanpainaren barruan PSOEk bertan duen egoitzaren aurka lehergailuz buruturiko ekintza, egoitza suntsituta suertatuz.

ETAk Durangoko PSOEn egoitzaren aurka buruturiko ekintzan, ezaugarri horiek dituen ekintzetan bezalaxe, oharpen dei bi burutu zituen. Lehena udaletxera eta bigarrena larrialdietarako telefono zenbakira. Larrialdietarako zenbakira eginiko dei saioan gure Erakundearen izenean deitzen ari zen ETako militanteari deia moztu zioten 112 egoitzan ari ziren poliziek, militanteak berriz deitu eta atxilotzeko denbora eduki zezaten. Gezurra da, berriz ere, Espainiako barne ministerioak, Lakuako barne sailburuak zein Alberto Surio polizia kazetariaren aginduz EITBren berriemaileek esanikoak. Herritarrek momenturen batean arriskuan izan baziren PSOeko agintariak, Lakuakoek zein Madrilekoek, hartutako erabakien ondorioz izan zen. Herritarrei dei egiten diegu egoitza horiekiko beste edozein instalakuntza militarrekiko hartu beharreko babes eta segurtasun neurri berberak hartzeko, beroietatik urrunduz eta beren etxe azpitan aurkitzen diren PSOE eta PPren egoitzak, suposatzen duten arriskuagatik, ixteko presio egin dezaten. Egoitza horien arduradun eta kudeatzaileei oharpen argia egiten diegu egoitza horiek itxi edota herritarrez hustu ditzaten. Soilik ilegalizazioaren aurka eta gatazkari konponbide politiko, elkarrizketatu eta demokratiko baten alde ateratzen diren arduradunak eta beren egoitzak geratuko dira ETAren xede izan ahal izatetik salbu.

- Gure gain hartzen dugu ere Uztailaren 29an, Burgosen (Espainia), Guardia Zibilak duen kasernaren aurka lehergailuz zamatutako ibilgailu bidez buruturiko ekintza. Ekintzaren ondorioz kasernaren

eraikinak kalte larriak jasan zituen eta bertan bizi ziren askok zauriturik suertatu ziren.

Burgoseko Guardia Zibilaren egoitzaren aurka buruturiko ekintzaz Alfredo Perez Rubalcabak, Espainiako Barne Ministroa, Guardia Zibilaren senideen aurka zuzendutako eta huts eginiko ekintza saioa izan zela hedatzen saiatu zen: Kaserna arras triskaturik gertatu ondoren Rubalcabak ekintza "frustratua" dela esaten duenean bere nahia eta ETArene nahasten ditu. ETari kontraesanak sortzera begira bera zen, eta ez ETA, guardia zibilaren senideak eta haurrak hilda ikusi nahiko lituzkeena. Bera da zibilak hiltzeko jolasean ari dena. Bera da horrelakorik eman ez dadin neurriak har ditzakeena eta hartzen ez dituenak.

Gezurra, toxikazioa eta propagandaren ministroan bihurtu da Rubalcaba: ETaren ustezko urteurrenaren ekintzak, ETaren ustezko barne eztabaida eta informazioak, ETaren militante drogazale eta mozkortiak, ETaren ustezko arduradunen erorketa eta ahulezia... denak balio du Euskal Herriak Frantzia zein Espainiarekin bizi duen zampaketa eta gatazka politikoa desitxuratzeko. Denak balio du ETaren aurka ekiteko, apustu errepresiboaren porrota eta aparatatu polizialaren lotsak ezkutatzeko bada ere. Euskal Herriko ingurutan dagoen Guardia Zibilaren kaserna handienaren parkingean, lehergaiez beteta eta egun erdiz, aparkatuta utzi zuen ETAK azken hiruhilabetekoan prentsan argitaratu eta polizia guztiak bilatzen aritu diren ibilgailua. Propaganda, toxikazio eta gezur borobilak errepikatuz soilik estali daitekeen datua. Azken urteotan bezala, azken asteetan ere "frustratua" eta antzua ageri zaigun bakarria estrategia errepresiboa eta bide polizialak dira.

- Azkenik gure gain hartzen dugu Uztailaren 30ean, Mallorkan (Països Catalans), Goardia Zibilaren aurka ibilgailuan egokitutako lehergailuz buruturiko ekintza, zeinaren ondorioz Carlos Sáenz de Tejada y Diego Salva Lezaun goardia zibilak hilik gertatu ziren.

Euskal Herriaren zampaketa gaindituko duen konponbide demokratikoa bideratzea da ETaren nahia eta borondatea. Espainiaren armen inposizioari egiten diogu, armen bidez, aurre. ETAK ez du, agintari espainiarrek errepikatzen duten eran, inongo proiekturik inposatzeko nahirik. Proiektu politiko guztiak era demokratikoan egingarri bilakatuko dituen konponbide politiko eta elkarrizketatua da ETAK bilatzen duena hamarkada luzeetan zehar. Autodeterminazioa, herriari hitza eman. Ordea, zampaketa, errepresioa eta irtenbide poliziala sustatzen darraite Espainia eta Frantziako agintariek. Tronpatu ziren iraganean eta oker dabilta orain ere. Aspaldi gabe esan genuen mozkor errepresiboak eta gero erresaka politikoak zetoze, eta berarekin berriz ere Euskal Herriak Frantzia eta Espainiarekin bizi duen gatazkari justiziazko irtenbide politiko eta demokratiko bat aurkitzeko premia.

Baina zampaketa eta errepresioa soilik ezagutzen dute Espainia eta Frantziako agintariek. Eta Euskal Herriarrok gure etorkizun politikoa ezin erabakitzeaz landa bide errepresiboaren apustua gure azaletan jasan behar dugu. Pasa den astean Espainiako Polizia Autonomikoak Villabonan Remi Aiestaran hil du. Ertzantza: "herri zaintza"tik omen. "Espainiazaintza" izena zuzenagoa litzateke harrotutako hiltzaile inpune horientzat.

Faxismo espainiarra azken hilabeteetan ofentsiba politiko errepresiboan urratsak ematen saiatzen ari da Euskal Preso Politikoen defentsan aritzen diren milaka eta milaka senide eta herritarren aurka. Euskal Preso Politikoei herriak eskaintzen dien babes, maitasun eta elkartasunarekin amaitu nahi dute orain. Akabatu, hobe esanda. Eta horra lehen biktima.

Remi, Aresen Ertzaintzak hil du. Remi, Lopez Caudilloaren PP-PSOE aliantza faxistak hil du. Remi, ilegalizazio eta errepresioaren estrategiek hil dute. Baina Remi hil dute ere: polizia neurri, espetxe eta errepresio gehiago eskatuz, estrategia errepresiboaren agitadore ideologiko papera besterik ez duten Txema Urkijo, Iñigo Lamarca, Maite Pagazaurtundua eta Marixabel Lasaren modukoek. Biktimaz moztututako borrarero horiek dira ere Remiren heriotzaren erantzuleak, ezker

abertzalearen aurkako sorgin ehiza bultzatzen duten horiexek. Soldata oparoekin bakearen eta biktimen izenean egun osoan ari diren horiexek dira arduradun. Azken egunetan zanpaketa, errepresio eta bide polizialaren bideragarritasuna babestu eta hauspotu duten arduradun politiko eta agintariak bezalaxe. Zinez lotsagarria eta penagarria da Espainiako kongresuan PNVek, zein Aralar eta Eusko Alkartasunak NABAIren bitartez, espainiar agintariekin idatzi eta adostutako agiri adierazgarria:

"Queremos manifestar a todos los miembros de la Guardia Civil nuestro reconocimiento por su labor y por su sacrificio permanente en defensa del Estado de Derecho, de nuestra libertad y de nuestros derechos. Del mismo modo, respaldamos y agradecemos la labor que realizan todas las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, que conseguirán, como tantas otras veces, que los asesinos sean entregados a la justicia y paguen por su crimen."

Guardia Zibilak Euskal Herrian azken hamarkadetan buruturiko heriotza, tortura eta mehatxuak gorestera datoz orain NABAik eta PNVek. Egunkaria eta beste komunikabide batzuen itxiera edota Gazte Sarearen aurkako operazioari euskal herritarren askatasunaren aldeko zeregina da nonbait. Igor Porturen eta milaka herritarren tortura kasuek Guardia Zibilari suposatu dioten sakrifizio eta lana azpimarratzera datoz orain. Guardia Zibila, Espainiako Polizia eta Ertzaintza euskal herritarren askatasunaren eta eskubideen bermatzaileak direla esatera datoz orain NABAI eta PNVek, PP-PSOErekin batera sinatutako agirian. Azaldu diezaiotela hori Remiren senideei, urte hauetan kasernetan bortxatu dituzten euskal militanteei, gau ilunetan kontrol batetik etxera dardarka itzuli diren herritarrei. Azaldu diezaiotela hori Jon Anzaren senideei. NABAik esan diezaiola hori Angel Berruetaren alargun eta semeei, edota Arbizun poliziek ordu luzez bahitu, torturatu eta mehatxatu zuten Alain Berastegiri. Oreja, Acebes eta Rubalcabaren irtenbide politiko bera eskaintzera datoz PNV, NABAI, ERC, BNG eta Madrileko korredoretan faxistaz inguratuta politikariaren pagotxan bizi diren horiek: ETakook espetxean hil arte usteltzen egotea, hori omen da gatazka politikoa konpontzeko errezeta. Azaldu diezaiotela hori Euskal Herritarrei, jar ditzatela Guardia Zibilari eta Espainiari "Viva!" horiek beren programa elektoralean.

Remi Aiestaranentzat, ordea, ez dago Espainiako Kongresuan bilkura berezirik, ez eta adierazpen instituzionalik. Remi Aiestaranentzat ez dago ixiltasun minuturik. Remi Aiestaranen senideentzat ez dago kalte-ordainik. Remiren omenaldietara joateko PNV, NABAI eta bestelako alderdiek ez dituzte oporrak alboratzen, ez doaz omenaldira: Remi espetxean egon beharko lukeen ANVko hautetsia baita, terrorista bat. Remirentzat ez dago Gasteizeko Parlamentuan omenaldirik, hori soilik gure herriko zanpatzaileentzako gordetako ohore gunea baita. Hori da herri honen tragedia: Estatuko inposizioaren aurrean bertako sasi politikariek erakusten duten saldukeria. Lotsag arria, penagarria.

Gure dolumin sentikorrenak Remi Aiestaranen senide eta lagunentzat. Gora Remi!

GORA "BAZTAN"! GORA "OKANA"!

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!

JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!

Euskal Herrian, 2009ko Abuztuan

Euskadi Ta Askatasuna

E.T.A.